



Langile bat hil da Agoitzen, 10 metroko altueratik erorita

LA HAINE - EUSKAL HERRIA :: 03/04/2025

55 urteko gizona eraikuntza-obra batean lanean ari zen. 2025. urte honetan, 12 langile hil dira euren lanpostuan Nafarroan.

55 urteko gizon bat hil da ostegun arratsaldean Agoitzen, obra batean lanean ari zela lan-istripu bat izan ostean. 15:56ak aldera gertatu da istripua, eta Agoizko mediku taldea, anbulantzia medikalizatu bat eta Foruzaingoaren patruilak bertaratu dira. Hildakoa, 55 urteko gizon bat, 10 metro inguruko altueratik erori da Agoitzen eraikuntza-obra batean lanean ari zela. Mobilizatutako larrialdi-zerbitzuek ezin izan dute ezer egin haren bizia salbatzeko, eta langilea bertan hil da.

<https://eh.lahaine.org/langile-bat-hil-da-agoitzen>